

SERIUZ FORCEPHUL DUKEA BETIKO GALDU ZENEKOA

Helena Fošnjar



Itzulpena: Garazi Otegi Etxezarreta

bestehitzak
||| |

drugebesede
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



Helena Fošnjär

SERIUZ FORCEPHUL DUKEA BETIKO GALDU ZENEKOA

Istorio honek dukearen mendeko leialenaren eta, era berean, bere eskribaua izan zenaren idazkiak laburtzen ditu, Artem Clairvoyant delakoarenak.

SeriuZ Forcephul duke gazte bat zen, Land of Grey eta Blue Waters-ko armada handiaren burua. Garai hartako munduan etengabe entzuten ziren bere soldaduen ospeari buruzko istorioak. Ipuin honetan, amaiera garrantzari egin behar dio aurre Forcephulek. Ia-ia amaierara arte, bere armada osoa alboan izan zuen. Mundu haiei buruz diharduten ipuinek inoiz deskribatutako armada indartsuena zen. Egun batean, ordea, hiri bat aurrean zuela, borrokatzeari utzi beharra izan zion.

Laugarren astea zeraman SeriuZ Forcephulek istorio tragiko hartan murgilduta -garai haietako zeruen azpiko eguzkiak kontaktzen zituen istorioen artean gehien aipatutako ipuinetako bat bilakatu zen-. Ustekabean gertatu zen, munduko bazter guztietako soldadu tropak gudu-egarriz zeuden bitartean.

Egun batean, lur berrien bila zebiltzala, Forcephulen alboan soinez soin zihozen tropek armada arrotz bat atzeman zuten urrutitik. Haien lerrokatutako hazitarako zaldi zurien mugimendu azkar eta koordinatuek mirespena sorrarazi zieten Forcephulen zalditeria unitateei. Zaldizkoei behatuz gero, arkulari mota berezi bat nabarmentzen zen jendartean. Beren arkulariak txikiak ziren, baina sorbaldetako buiraketan altzairuzko gezi luzeak zeramatzen. Beren jantziak bikainki landuak izateaz gain, ederrak ziren. Forcephulen armadako soldadu guztiak oso apain jantzita zeuden, denak asebeteta zeuden beti eta inoiz ez ziren egarri. Ia ezin zaurituzkoak ziren, baina era berean gihartsuak eta mantsoak. Forcephulen guduak luze iraun ohi zuten. Erabaki estrategiko konplexuez josita egon ohi ziren eta oraindik dastatu gabe zuten porrotaren zaporea.

Berehala, Forcephulek mezulari bat bidali zuen zalditeria tropa miresgarri harekin elkartzera, eta zaldizko azkar bat arroilan zehar abiatu zen lasterka, arratsaldeko argiaren urre-hori kolorean bilduta. Honako mezu hau eraman zuen: “Nire izena SeriuZ Forcephul da eta nire armada eguzkipean dagoen armada indartsuena da. Bake-asmoz gatoz. Ez ditugu zuen altxorak nahi. Zuen lurrak, zuen meategiak eta zuen ur-errotak zuekin partekatuko ditugu. Horrenbestez, zuek, jatorri nobleko gizonak, Land of Grey eta Blue Watersko garai zaharretako aberastasun guztiak eta bere agintari Radimir Fightphulen erregetzaren gupida jasoko dituzue.”

Mezulariak oharra irakurri zuenean, armada arrotzari begira jarri zen adi-adi, eta haien burdin jantzien distirak itsutu egin zuen. Soldaduek ez zuten hitz bakar bat ere esan, besterik gabe, finko begiratzen zioten, isilik. Jarraian, instant batean, zaldizkoek zaldien aho-uhalak tenkatu eta infanteria-soldaduak pauso bakar batean jaitsi ziren, lurrari dardar eginaraziz. Bira egin eta arroilara zuzendu ziren, eta soldadu bakar batek ere ez zion mezulariari so egin, ezta une batez ere.

Aurpegian begirada adierazkorra zuen mezularia beregana itzuli aurretik ere, Forcephulek bazekien ez zuela erantzunik jaso. Erritmo mantso eta dotorean, bere batailoiak izenik gabeko armada distiratsuari jarraitu zion.

Iluntasuna erori zenean, zuziak piztu zituzten; ez zeukaten ilunabarrean lurralde arrotzetan sartzeko ohiturarik.

Labarretan goizeko haize hotza labaintzen zen egunsentia iragarritz, eta armada zintzur gero eta estuago batean barrena zihoan, horren estua ezen bi zaldizko ezin baitziren bata bestearen alboan joan. Goi-lautada lehor batean amaitu zuten. Zeruertzean, harribitxi baten distira zeukan zerbait zegoen.

Hurrengo egunean, eguzki kiskalgarria Forcephulen soldaduen eztarriak lehortzen hasi zen. Eguzkia zeruan mantendu zen egun osoan zehar, ez zen laino bakar bat ere ageri. Urruneko mendien atzean ezkututzen hasi zenean, Forceful jabetu zen harribitxi hura hiri bat zela, eta aurreko egunean topatutako armada hiri hartakoa zela. Larritu egin zen, baina komandante militar bat zen. Zaldiari irmo jo zion ezproiez, eta dei egin zien soldaduei: “Ilundu baino lehen, kanpalekua egingo dugu hiri honen hormen aurrean!” Soldaduak urduri jarri ziren. Haiek ez zekiten, ordea, Forceful bazekiena; horren hiri handi eta eder gutxi zeudela gizakien arimak irudikatu eta beren eskuek eraiki zitzaizketenik, alegia.

Hiriaren parera heldu ziren. Seriuzeke aste oso bat itxaron zuen han. Bere esplorazio-ofizial guztiei kanpalekura joateko deia egin zien. Bere kanoi guztiak -baita astunena ere- iritsiko zain egon zen, barrualdetik azaldu ziren arte. Biharamunean, opari bat bidali zuen hiriko atera. Ez zen horren garestia, baina bere edertasuna sekulakoa zen; silexez egindako esfera bat, zeruko kolore guztiak zituena. Onartzeko modukoa zela iruditu zitzaion. Bertan egon zen zutik ilargi betearen gauetik ilargi eklipsearen gauera arte.

Hurrengo goizean, mezulari bat bidali zuen hiriko atera, gudu bat hastear zegoela eta bera, Forceful, bete-betea arituko zela jakinarazteko. Bere oparia onartu ez izana Land of Grey eta Blue Watersko loriaren aurkako irain gisa hartu zuelako egin zuen mehatxua. Mezularia, Currant Teary, bolaluma erabili gabe itzuli zen. Gaua erortzen ari zela, zaldia hartu eta kanpalekuan barrena ibili zen soldaduen aldartea ikuskatzeko. Isiltasuna zuen lagun, arrotza zitzaion isiltasuna, eta garagardo upelak ukitu gabe zeuden gurdietan. Iluntzean, bere aholkulariekin eta konpainiako komandanteekin eseri zen. Haiek bazekiten soldaduak zirela eta jakitun ziren ez zegoela eurek egin zezaketen gauza gehiegi, borrokatzeaz gain. “Bihar, ordulariak zazpiak ematen dituenean, aginduak emango dizkiegu gure tropei. Ilunabarrean, eraso egingo dugu. Su-jasa eroriko zaie gainean,” esanez amaitu zuten.

Egun hartan, ilunsentiko eguzkiak luze behar izan zuen lautadan ezkutatzeko. Eguzkiaren arkua zerutik desagertu zenean, suzko bolak kanoi hordetatik irteten hasi ziren. Gauaren erdian zehar, Forcephulen artilleria ahaltsuak hiriaren gainean zehar hedatzen zen ortzia argiztatu zuen. Bonbardaketa ikusten ari zela, burua astindu zuen: “Nire artillariek guduetan barrena eramaten ninduten nik atzamar bat mugitu beharrik gabe ere”. Gauak aurrera egin ahala, garagardo upelak entzun zitezkeen kanpalekuan biraka. Soldaduen eztarrietan behera zihoan garagardoa ere entzun zitezkeen, baina ez zen eresirik entzuten, ezta armadaren iragan bikainari buruzko ipuin bihotz-altxagarrikerik ere.

Eguna esnatu arren Forcephul denda barruan gelditu zen. “Ideia ona izan daiteke, agian, zaldiak jiratzea” burutapen hura ate joka zeukan buruan, baina horma zurien atzeko katedraleko kanpandorrearen ikuspegiak mutu utzi zuen. Ezproiak zorroztu zizkioten eta gero zaldi gainera igo zen. Hormen albotik ibiltzen hasi zen eta egun guztia behar izan zuen azkenik itzuli osoa egiteko. Arratsa zen ordurako. Mirari ugari zituen ikusiak, mundu zaharraren loriari eta jakintzari buruzko kontaketen oroitzapenetatik zetozkion batzuk. Bere armadari buruz hausnartu zuen: “Ez dago heroirik, ni baizik. Erresuma hau erabat ahituta dago. Inor ez da hitzak garraiatzeko gai. Soilik aginduak, ordenak, buru makurrak eta isiltasuna.

Hau al da nik ezagutzen dudan mundu guztia? Birjina bat bezala, historia nire alboan ezartzen da ohean nire bizitzako gau guztietan. Baina nor izango da horma bikain horien aurrean zutik jartzen den azkeneko gizona?”

Bere zaldi eder eta bizkorren gainean kanpalekura iristean, bere komandanteetako batek aurrerapauso bat eman zuen, eta esan zion agian zentzuduna izango zela gizon jakintsuak eta beren liburuak hara eramatea. Menturaz, bideren bat aurkituko zuten aurrean zuten oztopoa gainditu eta bestaldeko aberastasun handira iristeko. “Liburutegi bat gudura eramatea,” erantzun zuen Seriuzeke berotuta, “betidanik zorakeriatzat hartu izan da. Gudu-zelaian ikastea, guztiok gure biziengatik dardarka gaudenean? Jakintza preziatua lokatzezko gurdi-bideetatik eramatea, kuxkuxean dabiltzan ezjakin taldeen albotik? Inola ere ez, ene soldadu maitea!”

Egun hartan, ohera joan aurretik Forcephul barne-bakearen bila ari zela, bere lehenengo irakasleak, Nulla Aknowkingek, haur bat zenean kontatu zion istorio bat etorri zitzaion gogora. Hiri loriatsu bat garaitu zuen gerra-gizon bati buruzkoa zen. Inguratu egin zuen, eta setioak hilabete luze ugari iraun zituen. Guduetan etsipenean erortzen zen, baina hiriaren edertasunak ez zion amore ematen uzten. Erroiek bere soldadu gosetien azkeneko hondarrak jaten amaitu zutenean eta saguek dendak eta katapultetako sokak guztiz jan zituztenean, azkenean hiri haren atera hurbildu zen gizona. Atea erabat zabaldu zen bere parean, barrura egin zuen bertatik, eta hura izan zen haren berri izan zen azkeneko aldia.

Forcephul beldur zen ea berari ere zori hura egokituko ote zitzaion. Bere burua irudikatu zezakeen, gudu-zelaian gezi bat supituki eztarrian lehertzen zitzaiola edo etsaiaren kartzela zikinean arratoiek egunero nola jaten zuten ikus zezakeen, artean bizirik zela. “Ezin da ezer gertatu borrokarik gabe,” izan zen pixkanaka lo hartzen hasi aurretik izan zuen azken burutapena.

Ia goizero bezala, egun hartan ere Forcephul bere tropen alboan zebilen, pauso luzeak ematen. Bere armadan ordena zen nagusi, eta haien aurretik pasa ahala, soldaduek begirada alaiekin agurtzen zuten. Poztu egin zuen soldaduak ez zeudela kikilduta ez adoregabetuta ikusteak, gauean hiriko horma garaiezinei erabateko ezintasunez begira egon ostean. Bakarrik suertatu zen une batean, makurtu eta eskukada bat lur lehor hartu zuen. Jaiki, poliki atzamarrak laxatu eta lurra hatzen artetik berriz lurrera nola erortzen behatzen jarri zen. Bere begi ilunak malkotan hasi ziren, mantso, poliki, malko bakar bat begiaren sakoneran bildu eta gero bat-batean eta oso-osorik, udako euri tanta potolo bat bezala, lur lehorrera amildu eta han galdu zen.

Mundu askok oroituko zuten, hori aspaldidanik zekien. Izugarrizko aberastasuna, izugarrizko eskarmentua zabaldu zuen munduan barrena! Eskualde hutsetan mendeetan zehar eskuratutako jakintzaren haziak erein zituen gizona zen bera. Berriz dendara itzuli eta bere ahulki xumean eseri zen. Bere aurpegia eskuetan estali zuen, ukondoak belaunetan kokatu, eta harri bihurtzen ari zen sentipena izan zuen. Bizitzak, zenaren eta izan nahi zuenaren artean harrapatuta, oreka galdu zuen.

Bi egun eta bi gau gehiago pasa ziren, eta arratseko haize hotzek udaren amaiera iragarri zuten. Hirugarren astearen amaiera zen lautadara iritsi zirenean. Seriu Forcephulek armada osoari kanpalekua jasotzeko agindu zion eta egunsentian ilaran egoteko bere zain. Eguna argitzen hasi zenean, duke gaztea haien aurrean agertu zen. Hitz gutxi zerabiltzan: “Zoazte etxera, ni ere etxera itzuliko naiz, nire kasa, hiri hau menderatzen dudanean.” Soldadu bakar batek ere ez zuen jakin edo ez zen ausartu hari aurka egiten. Nahigabe handiz esan zioten agur, buruzagia euren artean oinez zebilen bitartean, eta poliki-poliki soldaduak mugitu egin ziren, ilara bat osatuz.

Arroila berera jaitsi ziren, zorigaiztoko topaketaren arroilara; melodia triste baten oihartzuna irteten zen handik. Horien parean, euriz betetako laino multzo garai, gris eta oparoak zeuden zeruertzean zintzilik. Ikuspegi hark, askoren iritziz, haien aieru ilunak sendotu besterik ez zuen egiten.

Denbora luzez haiei begira egon zen Forcephul, haiek mendatea nola zeharkatzen zuten ikusten, zilarrezko erreka urruntasunean lausotzen den bezala pixkanaka desagertzen zihoazen bitartean, amildegiek eta zintzurrek marraztutako silueta malenkoniatsuari begira. Azkeneko kanoiak azken mendatea jaitsi zuenean, haize ufada batek duke bakartiaren bizar gorrixka zeharkatu zuen, eta haren barruan itsasoa usaindu zezakeela sentitu zuen. Presarik gabe, baldarki ere bai nolabait, gudurako jantzi osoa gainean zuela, biratu egin zen. Soilik bera eta hiria geratzen ziren. Pauso bat eman zuen, hiria gertuago zeukan. Beste pauso bat eman zuen eta pixkanaka bere bidean aurrera egin zuen. Jabetzerako, hiriak bete zuen bere begiek ikus zezaketen oro, horren gertu baitzegoen. Bazekien han geratuko zela. Larruzko xingola batekin arretaz apaindua zegoen ezpata bere zorrotik atera zuen, bi besoekin estu heldu zion, eta bere indar guztiarekin parean zeukan lur lehorrean sartu zuen. Begiratzen zuen lekura begiratzen zuela, horma altuak zeuden zutik, harri maldatsuen kontra ezarrita. Hormen gainetik, kontrol dorre boteretsuak eta sendoak irteten ziren.

Bere burdin jantzia kendu, kaskoa askatu eta kendu egin zuen. Belaunetako zilarrezko babesak soltatu eta dena kontu handiz bere alboan utzi zuen. Une batez gelditu egin zen, eta gero ozenki eta burrunban esan zuen: “Nire izena Seriu Forcephul da. Nire bizitzan zehar lurralde asko konkistatu ditut. Horiek guztiak tiraniatik, gaitzetik eta miseriatik atera ditut. Herritarrei osasuna, errukia eta maitasuna ekarri diet. Baina nire bizitzan inoiz ez naiz jabetu nire konkisten eta nire artean beste zerbait zegoela, aintzat hartzen ez nuena. Nire zaldizkoekin batera, abiada handian pasa izan naiz beti hemendik. Ikusten ez nuena zera da, nire bizitzan inoiz ez nuela norbait garaitu, gero ni garaituko ninduen. Hemendik ikusten ari naizena ni mendean hartzen ari da. Historiaren arimak gogoratu egingo nau, baina ni neu garaitua izan naiz. Eta honaino gerturatu naiz, zure hiriaren ikuspegiak berak akabatu nazan. Nire amaiera hemen dago, nire amaiera zuri begiratzen dizudan kokagune hau bera da. Loria Land of Grey eta Blue Watersentzat.”

Une hartan amaitu zuen. Liluratutako txolarre multzoak amildegi harritsu batean aireratzen direnean bezalaxe astindu zuten zero beltza altzairuzko geziek. Seriuaz Forcephul zulatzen zutela, haren inguruko zikintasun lehorra aztoratuz, eguzkipean bititako duke handienaren azken hitzak honako hauek izan ziren: “Eskerrik asko, berorren gorentasuna.”

Orduz geroztik dukea usteltzen zetzan lekuan zuhaitz handi bat hazi zen, adaburu mardul bat zeukana. Milaka eta milaka adarrek babesa ematen zieten euren bizileku berria zuhaitz horretan ezartzen zuten txoriei. Txoriek abestiak ekarri zituzten, eta zelaia berde bihurtu zen berriz.